

Altza

Larraitz Garmendia | fnoa.: 943-391267


Ospakizunak hilaren 2an hasiko dira kultur etxean jarriko den argazki erakusketarekin. Argazkiek haurtzaindegiaren iragana gogora ekarri eta egungo egoera erakutsiko digute. Azaroaren 4an haur parkea izango da gaztelu puzagarriekin, haurtzaindegiko enparantzan. Hurrengo egunean, azkenik, 25. urtemuga ospatzeko meza egingo da San Pablo parrokian. Meza haurtzaindegia abian jartzen lagundu zuen Aranburu apai-zak emango du eta amaitu ondoren, mokadoren bat jateko aukera izango da.

Roteta haurtzaindegia 1974an hasi zen lanean. Hasierako urteetan haurtzaindegi zerbitzua bakarrik eskaintzen zuen arren, urteek aurrera egin ahala, ludoteka ere jarri dute bertan, jokuen bidez hezkuntza landu eta laguntza eskaintzeko.

Haurtzaindegia, gaur egun, hamabi ordu egoten da zabalik: goizeko 07.00etatik arratsaldeko 19.00etara.

Roteta, 25 urte auzoko haurrekin lanean

Roteta haurtzaindegiak datorren azaroaren 4an 25. urteurrena beteko du. Datozen egunotan, ospakizun egitarau sorta antolatu du.



Hauek dira haurtzaindegiko langileetako batzuk. Osora, hamahiru lagunek dihardute Rotetan lanean.

Hamahiru langile ditu eta bi areto; batean bi urte bitarteko haurrak egoten dira eta bestean, bi eta hiru urte bitartekoak. Dena dela, 2002. urteari begira haurtzaindegiak ikasketa erreforman sartzeko asmoa dagoenez, Rotetak ere aldaketek egingo die. Berritzeko asmo

horiek bat egingo dute Altzako gizartean azken urteetan izandako aldaketekin. Ez dugu ahaztu behar, lehen ez bezala, egungo haur gehienak Altzan edo Donostian bertan jaioetako gurasoen seme-alabak direla eta era berean, azken boladan Txinatik, Guatemalatik edo

Ingalaterratik etorritako umeak daudela haurtzaindegian. Horrekin batera, langabezia dela eta, gero eta haur gehiago etxean hezitzen dituzte gurasoek. Horiek guztiak kontuan hartuko ditu Rotetak, 25 urte lanean egin ondoren, beste 25 urte bete ahal izateko.

